

JARDUNBIDE EGOKIAK, KUDEAKETA BERDINZALEA EGITEKO

KUDEAKETA BERDINZALEA EGITEKO JARDUNBIDEAREN IZENBURUA: Telelana baliatzea kontziliazioa errazteko tresna gisa.

HELBURUAK: Pandemiaren osteko garaian jardunbide positiboak egiten jarraitzeko aukera ematea, bizitza pertsonala eta lan-bizitza hobeto uztartze aldera.

ERAKUNDE ARDURADUNA: URAREN EUSKAL AGENTZIA

BERDINTASUN-TALDEA (Uraren Euskal Agentziako Berdintasunerako antolaketa-egitura) (11 pertsonak osatua).

LANGILE-KOPURUA: **7** Emakumeen ehunekoa (langile guztien % 4)

LANGILE-KOPURUA: **4** Gizonen ehunekoa (langile guztien % 2,3)

WEB: www.uragentzia.eus

BESTE ERAKUNDE BATZUK, JARDUNBIDE EGOKIAN PARTE HARTZEN DUTENAK

HASIERA-EGUNA: 2022ko martxoaren 1a

HARREMANETARAKO: LORENA BARANDA/FÉLIX CANTERO

POSTA ELEKTRONIKOAK: lbaranda@uragentzia.eus / f-canteropalacios@uragentzia.eus

GAKO-HITZAK: Bost kontzeptu hauek dira lotura handiena dutenak jardunbidearekin:			
	Estrategia		Enpleguak sortzeko aukera
	Pertsonak		Gizonak nagusi dira sektorean
	Aliantzak		Lanaldia murriztea
	Hornitzaileak	x	Baimenak
	Erantzukizun sozial korporatiboa		Amatasuna eta aitasuna
	Kudeaketa-eredua	x	Ardura partekatuko kontziliazioa
	Zeharkakoa	x	Telelana
	Kualitatiboa eta kuantitatiboa.		Denbora eta espazioa antolatzea
	Kudeaketa sistematikoa, metodologia edo prozesua	x	Erantzunkidetasuna
	Diagnosia		Zaintzak eta bizitzaren iraunkortasuna
	Berdintasunerako plana		Segurtasuna, Osasuna eta Ongizatea:
	Genero-ikerketak eta azterketak		Bezeroak eta erabiltzaileak artatzea
	Estrategian txertatzea		Protokoloa: "Sexu-jazarpena" eta "Sexuagatiko jazarpena"

	Genero-ikuspegia txertatzea/mainstreaming	X	Lan-baldintzak
	Feminizidioa		Ordainsari-politika
	Genero-indarkeria		Lanbide-sailkapena
	Arriskuari aurrea hartzea		Kristalezko sabaia.
	Barne-komunikazioa		Lidergoa, partaidetza feminista
	Kanpoaldeko komunikazioa		Interseksionalitatea, aniztasuna
	Sexismorik gabe komunikatzea		Genero-ikuspegia
	Gardentasuna		Erreferente diren emakumeak ikusaraztea
	Publizitatea		Autodefentsa feminista
	Nazioarteko egunak: otsailaren 22ko, martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko kanpainak		Ahalduntzea
	Prestakuntza eta sentsibilizazioa		LGTBIQ+ politikak
	STEAM		Maskulinitate berdinzaleak
	Aholkularitza		Emakume migratzaileak
	Barne-sustapena		Esku-hartze soziala

DESKRIBAPENA:

Aurreko urteetan bezala, Agentzia ahalegindu da berdintasunaren arloan aurrera egiten.

Pandemiaren azken denboraldi larrienean, beste erakunde askotan gertatu zen bezala, URAk telelana ezarri zuen, larrialdi-sistema gisa, langileen osasuna zaintzeko eta ahalik eta normaltasun handien zerbitzua ematen jarraitzeko, bai eta ezohiko garaietan kontziliazioa errazteko ere.

Murrizketa handienetako faseak gainditu ondoren, argi geratu da hartutako neurriak erabilgarriak direla lana eta familia bateragarriak egiteko. Horregatik, dagozkion negoziazioen ondoren, URAk telelanaren sistema formalizatuagoa ezarri du, epe luzera begira.

Hori guztia jasota dago Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2022ko urtarrilaren 18ko Ebazpenean, zeinaren bidez telelanaren bitartez aurrez aurrekoak ez diren zerbitzuak emateko deialdia egiten baita. Lantokia ez den beste leku batetik (etxetik) astean gehienez 3 egunetan telelana egiteko aukera ematen da, eta, horrenbestez, beharrezkoa da gutxienez astean 2 egunetan lantokira joatea. Lantokira lanera joan beharreko bi egun horietako batean, arlokako bilerak ezartzen dira, lantokian bertan telelanean diharduten langileen eginkizunen jarraipena egiteko arduradunekin.

Langile batzuek ezin dutenez zuzenean baliatu lan-antolamenduko neurri hori, xedapen gehigarriak aurreikusi dira betetzen dituzten lanpostuen ezaugarriak direla-eta telelanean jarduterik ez dutenentzat (URAn urtebete baino gutxiago daramaten langileentzat edo arduradunentzat, eta abar).

Kasu horietan, ebazpenak aukera ematen du lanpostua bizilekutik hurbilen dagoen bulegora mugitzeko; hala, beste lurralde historiko batetik lan egin daiteke.

BERRIKUNTZAK: Maiatzaren 28ko 92/2012 Dekretutik abiatuta, URaren ebazpen hori asmo handiagokoa da, neurri gehigarriak ezartzen baititu lantokira bertaratzea beharrezkoagoa den kasuetarako, hala nola asteko egun jakin batzuetan aldi baterako bulegoa aldatzea (aipatutako dekretuaren bidez onartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako enplegatu publikoek telelanaren bidez aurrez aurrekoak ez diren zerbitzuak nola eman behar dituzten arautzen duen Akordioa).

la langile guztien eskura jarri dira ekipo eramangarriak. Hala, gaur egun, kasu gehienetan mugikorra da bulegoa, eta horri esker bateragarriago bilakatzen dira lana eta bizitza pribatua.

Hori guztia erakundearen kulturaren parte da orain. Horrela, ingurunera hobeto egokitzeaz gain, kontziliazioa errazten da.

EMAITZAK (eragin positiboak edo ondorio negatiboak murriztea):

Langileen parte-hartze handia (ikus ehuneko banakatuak).

Baliabide telematikoen aprobetxamendua, bulegotik kanpo egon ohi direnak barne (mugikorraren, tabletaren, ordenagailuaren bidezko irisgarritasuna), eta baliabide guztietara iristeko bitartekoak bermea. Bideo-deiak kontziliazio-tresnatzat jo dira, eta haien erabilera orokortu da nahiz bilerak egiteko nahiz prestakuntza jasotzeko.

Antolatzeko modu hori joan da pixkanaka onartzen, eta, horretarako, nahitaez lantokian bertan egin beharreko bilerak koordinatu eta optimizatu dira.

Pandemia-egoeratik haratago, telelana orokortzeari esker, eta haren ondorioz lantokira joateko denbora aurrezten denez, langile gutxiagok hartu ditu adingabeak zaintzeko lanaldi-murrizketarako baimenik (edo gaur egun murrizketa-ehuneko txikiagoak dituzte), telelanak kontziliazioa errazten baitu.

KUDEAKETAN TXERTATUA:

Enpresa erantzukidearen kultura eta jardunbidea sustatzea zen Uraren Euskal Agentziaren I. Berdintasun Planean ezarritako helburuetako bat . Ildo horren barruan neurri hauek sartzen ziren, besteak beste:

Kontziliaziotik erantzunkidetasunerantz aurrera egiten erraztea.

Agentziaren II. Berdintasun Planean (2019-2022) honako esku-hartze ardatz hau jasotzen da: Kontziliazio erantzukidea, kontziliazioaren bidean aurrera egiteko erantzukidetasunerantz. Horren barruan, halaber, helburu hauek ere lortu nahi dira:

Kontziliaziotik erantzunkidetasunerantz aurrera egiten erraztea.

Horrela, telelana, kontziliazioa hobetzea ahalbidetzen duen lana antolatzeko modutzat joa, erakundeak urtero egiten dituen ekintzetan islatzen da, eta Agentziako kide guztiengana iristen da.

Halaber, hartzaileen *feedbacka* jasotzen da (edo atzeraelikadura/iritziak), etengabeko hobekuntza lortzeko.

ERAGINKORRA ETA EFIZIENTEA:

Agentziaren giza baliabideak eta baliabide materialak baliatu dira jardunbide egokia gauzatzeko: besteak beste, plangintza, erregulazioa eta ezarpena dagozkien zuzendaritzen kontura izan dira, eta Agentziaren funtzionamendu-gastu arruntetan sartu dira.

Ekipo informatikoak eta telefonia ibilgailuen atalera igarotzeko prozesua Agentziaren gastuen kontura izan da.

PARTAIDETZA ETA JARDUNBIDEAREN IRISMENA:

Partaidetza sindikatuen adostasunarekin lortu da. Elementu gehigarri gisa, behar zen malgutasunez jorratu zen Covid-telelanaren aurreko fasea, URaren ebazpena promulgatu aurretik.

Pandemiaren ostean parte-hartze handia telelanean:

		GIZONAK	EMAKUMEAK
LANGILEEN KOPURUA, GUZTIRA	173	87	86
TELELANEAN JARDUN DEZAKETEN LANGILEAK	92	44	48
	% 53	% 51	% 56
BESTE BULEGO BATEAN LANEAN (pertsonek kopurua)	7	2	5
	% 4	% 2	% 6
NEURRIEZ BALIA DAITEZKEEN LANGILEAK	% 57	% 53	% 62

TELELANEAN/TELELANEAN JARDUN DEZAKETENAK (%TAN)

GIZONAK	21	% 44
EMAKUMEAK	32	% 73
GUZTIRA	53	% 58

Proiektuak ia langile guztiei eragiten die, eta, halaber, bermatzen du langile gehienek izango dutela lana horrela antolatzeko aukera.

DOKUMENTAZIOA:

Ebazpena, 2022ko urtarrilaren 18koa, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, telelanaren bidez modalitate aurrez aurrekoak ez diren zerbitzuak emateko deialdia egiten duena (erantsita), bai eta lan antolaketa hori eskatzeko eta emateko estatistikak ere.

ARRAKASTA-FAKTOREAK:

Proiektua Zuzendaritza Nagusiak babestu du, arloan esperientzia duten Berdintasun Taldeko langileek lagunduta. Hala ere, antolaketa-eskumen hori Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritzan dago, alderdi orokorreki dagokienez, eta, kontu zehatzagoetarako, gainerako zuzendaritzetan.

Laneko arriskuen prebentzioaren gaia zaindu da, eta ziurtatu da telelaneko lekuak horretarako behar dena betetzen duela.

Hedatu aurretik, Berdintasun Taldeko kideek gaiari buruz eztabaidatu dute. Gainera, telelana ezartzeko une kronologikoki egokia bilatu da.

Erabilitako baliabideak egokiak izan dira (pertsonek, materialak eta ekonomikoak)

BESTERENGARRITASUNA: Telelana eta teleprestakuntza sustatzeko gaur egungo ildotik jarraituz, jardunbide hori sektore publikoko edo pribatuko beste erakunde batzuetara esporta daiteke kontziliazio-ekintza gisa. Izan ere, 92/2012 Dekretuaren babespean dago, eta ahal den neurrian egokitzen eta zabaltzen saiatzen da.

IKASKUNTZA:

Uraren Euskal Agentziaren asmoa da neurri hori gaur egun telelana baliatzerik ez duten beste kolektibo batzuetara zabaltzeko ahal izatea, hala nola erdi-mailako agintariengana, ahal den unean, hau da, Eusko Jaurlaritzak ezarriko duen araudi berria zehaztu ondoren.

Informazio-klausula (Lehen maila)

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (aurrerantzean, DBEO) 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, EUSKALITek informazio hau ematen du zure datu pertsonalen tratamenduari dagokionez:

Arduradunaren identifikazioa: Kalitatearen Sustapenerako Euskal Iraskundea – EUSKALIT (www.euskalit.net)

Nik (X) baimena ematen dut EUSKALITek eta Emakundek nire datuak trata ditzaten, Berdintasunaren Bilatzailean parte hartzeko Kudeaketan eta sor daitezkeen komunikazioen eta esperientzia-trukeen kudeaketan.

EUSKALITek jarduera horiei eta sustapen-jarduerei lotutako beste batzuei buruzko jakinarazpenak bidali ahalko ditu.

Datuak atzitzeko, zuzentzeko, kentzeko, haien tratamendua mugatzeko, tratamenduaren aurka egiteko eta datuen eramangarritasunaz baliatzeko eskubidea duzu. Baliatu nahi izanez gero, hona idatzi: lopdeuskalit.net

Mesedez, begiratu [pribatutasun-politika](#), jakin nahi baduzu zer baldintzatan egiten duen EUSKALITek zure datuen tratamendua eta zer eskubide dituzun horren gainean.